



"Gaur egun zaintza ez egitea pribilegioa da; zaintzaren kultura aldatu behar dugu"

Mugimendu feministak bide orri berri baterako mugarria ipini du Martxoaren 8 honetan. Zaintza ipini du aldarrikapenen erdigunean, eta zaintzaren kultura eraldatzeko borroka hasiko du herritar guztientzat bizimodu duin eta bizigarria lortze aldera. Aldarrikapen hori agenda politikoan eta sozialean sartzeko, greba orokorra antolatuko dute. Nerea Lizarralde Sampedro zaldibartarrak eta Itsaso Basauri Larrañaga elorriarrak azaldu dituzte lan ildo berri honen nondik norakoak. • 2-3



Emakume durangarren memoria kolektiboa, dokumental batean

Durango • 'Durangas' filmean 50 emakume durangarren memoria bizia jaso dute. Aurrestreinaldia zapatuan izango da, 12:00etan, Zugazan. Raquel Calvo da filmeko zuzendaria, eta Zuriñe López de Sabando argazki zuzendaria. • 5

'Argi egin' diskoagaz eta kontzertu sorta batezagaz agurtuko da Mocker's

Musika • Mocker's hirukote durangarrak hamabost urteko zikloa borobilduko du. 'Argi egin' diskoa kaleratu du gaur, eta ekainera bitartean hamabost bat kontzertu emango ditu. Horietariko hainbat Durangaldean izango dira; lehenengoa datorren martxoaren 18an, Elorrioko gaztetxean. • 18



SARA ESTEBEZ



“Sistemaren erdigunean zaintza ipintzea beharrezkoa da bizimodu bizigarriak sortzeko”

Martxoaren 8 honetan, mugimendu feministak zaintza sistema iraultzeko dinamika ipini du martxan. *Denon Bizitzak Erdigunean* izeneko txostenean batu dituzte hemendik aurrerako lanketak

FEMINISMOA • EKAITZ HERRERA

Nerea Lizarralde Sampedro (Zaldibar, 1994) Dominika Talde Feministako kidea da. Eta Itsaso Basauri Larrañaga (Elorrio, 1988) Elorrioko mugimendu feministako kidea. Durangaldeko mugimendu feministako kide biek zaintza erdigunean ipintzeko hasi duten dinamika azaldu dute.

Aurtengo Martxoaren 8an zaintzak hartu du aldarrikapen erdigunea. Zein da arrazoia?

Nerea Lizarralde Sampedro: Konfinamenduan, etxean geundenean, oso

argi geratu zen bizitzeko ezinbestekoa dugun tresna dela zaintza. Jaiotzen garenetik hiltzen garen arte zaintza behar beharrezkoa dugu bizitzeko. Izurriak hori ipini zuen erdigunean.

Itsaso Basauri Larrañaga: Bai, hiru urte dira Euskal Herriko Koordinadora Feminista zaintzaren inguruko lanketa egiten hasi zenetik. Gaur egungo sistemak ez du bizitza erdigunean ipintzen. Ekoizpen bat ipintzen du erdigunean, garapen ekonomiko bat, eta horrek bizitzen zapalkuntzak sortzen ditu. Siste-

maren zentralitatea zaintza izatea beharrezkoa da, horregaz bizimodu bizigarriak lortzeko.

Joan zen astean, Durangaldeko mugimendu feministak zaintza "krisian" dagoela azpimarratu zuen. Non igartzen duzue krisi hori?

I.B.L.: Zaintza krisialdian eta kolapsatuta dago. Sistemak ez dio zaintzari erreparatzen. Ez modu ekonomiko batean, ez hartu-emanen sareetan, ez hirigintza ikuspegietan. Beste helburu batzuk ditu. Zaintza ezkutatuta dago, ematen du berezkoa den zerbait dela, baina emakumeak dira zaintza horri eusten dioten subjektuak.

'Denon Bizitzak Erdigunean' txostenak jasotzen du egungo zaintza eredia "familiarizatua", "merkantilizatua" eta "feminizatua" dagoela.

N.L.S.: Bai. Familiarizazioari dago-kionez, hor odoltasunaren kontzeptua dago. Kulturalki, emakumeari ezartzen zaio eguneroko zaintzarako rola. Amari, alabari. Soldata arrakala ere badago, eta kontuan hartu behar da zaintzagaitiko jak, lanaldi murriztuak, normalean emakumeenak izaten direla. Zaintzaren kultura eraldatu behar dugu; azken finean, zainketa jasotzeko eskubidea dugun moduan besteak zaintzeko betebeharra ere

badugulako. Baina hau guzti hau nukleo familiarretatik kanpora ere landu behar da. Nor eta zelan zaindu edo zainduak izan gura dugun ala ez erabakitzeak aukera izan behar dugu. Izan ere, gaur egun, zaintza ez egitea pribilegioa da. Eta pribilegio hori zentroan daudenek dute: gizonezkoek, zuriak eta maila sozioekonomiko handia dutenek.

Zaintzaren kultura aldatu behar dugu, zainketak jasotzeko eskubidea dugun moduan besteak zaintzeko betebeharra ere badugulako

I.B.L.: Bestalde, zaintzaren merkantilizazioa dago. Zaintzak oinarri handi bat izan behar du instituzioetan, zerbitzu publikoetan. Baina azpikontraturiko zerbitzuekin, negoziok, ikusten dugu zaintza pribatizazio prozesu batean dagoela. Guk diogu zaintza ezin dela etekin ekonomiko sortzeko planteamenduetan sartu. Eta joera hori zerbitzu publikoetatik kanpora ere

badago. Zuriak garen neurrian, egokiagoa iruditzen zaigu guk baino askoz baldintza apalagoak dituen baten bat zaintza lanetarako kontratatzea.

N.L.S.: Bai. Eta zaintza feminizatua dagoela diogunean, ikusten dugu emakumeak garena zaintzaz arduratzen garenak, lan ordainduetan, familian eta zaintza sareetan. Lagun artean ere halantxik da. Zaintzaren kultura aldatu behar dugu. **Zaintzaren kultura aldatu behar dela diozue. Zein oinarri behar ditu kultura berri horrek?**

I.B.L.: Zaintza komunitate oso batean antolatzeko erronka da hasi duguna. Enpleguaren arloan, zaintza zerbitzu publikoak zelan josten ditugun aztertu beharko da. Baina hartu-emanen dagokienez ere, komunitateak zelan eratu gura ditugun aztertu beharko dugu. Ea zelan gura dugun lurraldea zaindu, ea hirigintza aldetik intergenerazionalak eta interdependentek diren komunitateak sortzen ditugun. Azken finean, zaintza erdigunean izango duen sistema berri bat diseinatu behar dugu. Eta, jakina, horrek baliabide pertsonaletan eta ekonomikoetan inbertitzea eskaten du, eta zaintzagazko dugun kontzeptzioa bera aldatzea.

N.L.S.: Gainera, kontuan hartu behar dugu zaintzaz arduratzen den langile asko erregularizatu barik dagoela. Hori guzti hori berrikusi egin behar da, lana baldintza duinetan eta kontratupean egin ahal izateko. Emakume migratu askok esplotazio eta prekarizazio egoeran lan egiten du. Atzerritartasun Legea eraldatu behar da horretarako. Hain zuzen ere, mugimendu feministak gutxieneko batzuk eskatuko ditu etortzekoa den greba orokorrean.

Zaintza ezin da negozioia izan, ezin da etekin ekonomikoa sortzeko planteamenduetan sartu

Sistema, instituzioak, jendartea, prest ote daude aldaketa hauek agendan sartzeko?

I.B.L.: Guk planteatzen dugun ereduak zaintzara bideraturiko injekzio ekonomiko potente bat eskatzen du. Aurrekontuetan birplanteamenduak egitea dakar horrek. Eta ez bakarrik soldatetan. Baita sortu beharreko eremuetan ere. Gero, gaia komunitatera jaitzita, kontuan hartu behar dugu emakumeek egunean 4,3 ordu

eskaintzen dizkietela zaintza lanei; gizonezkoek, oster, 1,5. Datu horiek jakinda, nik behintzat argi dut zein aldetan kokatu. Baina prest gaude?

Bestalde, mugimendu feministak landuriko txostenak hainbat dimentsiori egiten dio azpimarra. Haurtzaroko zaintzari, aniztasun funtzionalari eta zahartzaroari.

I.B.L.: Kontziente izan behar dugu denok behar dugula zaintza. Jaiotzen garenetik hiltzen garen arte interdependienteak gara eta aipaturiko hiru eremu horietan handiagoa da dependentzia maila. Geroago eta dependienteagoak diren pertsonen zainketak prekarizatuago egoten dira.

Gaia Durangaldera ekarrita, nondik hasi zaintza eraldatzen?

N.L.S.: Jendea etxeetan dabil lanean, baldintza prekarioetan, soldata txarrekin. Hori hemen bizi dugun errealitatearen zati da. Txostenak tresnak eskaintzen dizkigu ardurak kokatzeko. Etxe barruko ardurak dira batzuk, hartu-emanen sareetan zentratuak beste batzuk, udaltako ardurak, egoitzetakoak... Gizarteko geruza guztietarako lanketa dago jasota. Bai, hemen ere badira Durangalderako, herrietarako, auzoetarako, koadrilletarako, familietarako, zentroetarako erantzunak.



Eguazteneko mobilizazioan, etxeko langileek Zornotzako balkoi batean egin zuten protesta.

Euskal Herriko mugimendu feministak greba orokor bat antolatze bidea hasi du

Oraingoz ez dute greba egunik zehaztu, baina iragarri dute eragile sozial eta sindikalekin antolatuko dutela. "Zaintzarako eskubide kolektiboa" aldarrikatuko dute greban

GREBA • E.H.

Euskal Herriko mugimendu feministak greba orokor bat antolatze bidea hasi du Martxoaren 8 honetan, "zaintzarako eskubide kolektibo baten alde" eta "pertsona guztiek bizitza osoan zehar zaintza baldintza duinetan eta konpromisotik emateko eta jasotzeko duten eskubidearen alde". Oraingoz ez dute data zehatzik markatu egutegian, baina iragarri

dute greba "herri mugimenduekin, mugimendu sozialekin eta sindikatuarekin" aliatuta egingo dutela. Greban, zaintzaren "merkantilizazioa", "pribatizazioa" eta "esplotazioa" salatuko dituzte. Baita etxe barruko enpleguaren "erregimen matxista, arrazista, sexuala eta koloniala" ere. Horren aurrean, zaintza "eskubide kolektibo" izateko aldarria egingo dute, "gaur egun, ez zaintzea pribilegioa"

dela iritzita. "Ez dugu promesa huts gehiagorik gura, ezta gure diskurtsoen kaptaziorik ere: zaintzarako eskubide unibertsala exijitzen dugu, eta zaintza horiek negozio izateari uztea", adierazi dute hedabideetara bidalitako oharrean.

Durangaldeko mugimendu feministak ere aldarri horri heldu dio. Eguazteneko mobilizazioetan herritar asko batu zen Martxoaren 8ko mobilizazioetara.

BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta

DURANGO • J.D.

Otsail hasieran Siria inguruan gertaturiko lurrikaran kalteak izan zituztenei laguntzeko asmoz, datorren domekan zumba maratoi solidarioa egingo dute, 11:30etik 13:30era, Landako Kiroldegian. Olga Otero eta Maria Elgezua ama-alabak dira antolatzaileak. Biek urte askoko esperientzia dute zumba irakasten eta maratoi solidarioak egiten. Hainbat bider Geu Be elkartearen aldeko maratoiak antolatu dute, arrakasta handiz.

COVIDaren osteko lehenengo maratoi siriarrari laguntzeko egingo dute. Sarreraren prezioa honako hau da: hiru kilo elikagai iraunkor eramatea. Horrez gainera, arropa, oinetakoak, garbitasun produktuak eta antzerakoak ere jasoko dituzte.

Ekimenak ordu bi iraungo du. Tarte horretan, bakoitzak gura duenean eta gura duen denboran parte hartu dezake. Musikari dagoenez, zumba erritmoak nagusituko dira, baina Burlesque ikuskizun motari dagozkion doinuak ere entzungo dituzte. Elgezuak estilo horretako klaseak ematen ditu.

Nazioarteko laguntza Siriara helaraztea Turkiara helaraztea baino "gatxagoa" dela dio Maria Elgezuak, herrialde bien arteko

Domeka honetan zumba maratonia egingo dute, lurrikaran kalteturiko siriarrari laguntzeko

Landako kiroldegian egingo dute ekimena. Parte hartzeko baldintza bakarra hiru kilo elikagai iraunkor eramatea da



Geu Be laguntzeko egindako maratoni solidario bateko irudia.

mugan bizi den egoeragaitik. Beraz, materiala eta elikagaiak Siriara bidaltzeko, konfiantzazko eragile baten bila ibili dira. Galdakaoko Boluntarioen Gizarte Elkartean aurkitu dute bila zebiltzana. "Eurekin berbetan egon ginen eta

hango errealitatea ondo ezagutzen dutela ikusi genuen. Lantalde bat dute han. Ezer entregatu aurretik, materiala joango den biltegia bertatik bertara ikusten dute. Euren lanak konfiantza eman zigun", adierazi du Elgezuak.

Oroimen Gunea ipiniko dute Durangoko hilerrian


Bonbardaketaren ondoren han lurperatu zituztenak gogoratzeko espazioa sortu gura du udalak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak "oso zor garrantzitsua" kitatu gura du 1937ko Martxoaren 31ko bonbardaketaren harira. Horretarako, Oroimen Gunea bat ipiniko du egun hartan eta hurrengoetan kanposantuko hobi komunetan lurperatu zituzten biktimak gogoratzeko. Jesus Rodríguez Jauregi artistaren eskultura bat izango da memoriarako gunea berriaren ardatza. Hilerriko zelai batean ipiniko dute, bonbardaketaren ondoren

han lurperatu zituztenak topatzeko iaz arakatu zuten eremuan. Hilerrian lurperatu zituzten 84 biktimen izen-abizenak ipiniko dituzte eskulturaren.

Gerediagak, Durango 1936 elkartek edo Aranzadik egindako ikerketei eskerrak, gaur egun jakina da bonbardaketaren ondoren gutxienez 84 biktima lurperatu zituztela kanposantuan. Baina hobi komunok eta horietan lurperaturiko biktimak ezin izan dira aurkitu.



Oroimen Gunearen infografia.

Durangoko Udalak publiko egin ditu Aztikerrek egindako inkestako emaitzak

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Aztiker ikerketa etxeak azterlan bat egin du durangarrek udalarekiko eta haren proiektuekiko duten iritzia jakiteko. Ikerketak herritarren arazo nagusiak, osasungintzarekiko kezka, hauteskundeetarako boto estimazioa eta tren geltokiaren akordioari buruzko iritzia jasotzen ditu, 614 durangarrek osaturiko lagina hartuta. Biztanleen iritziz, aparkaleku faltak (inkestari erantzun diotenen %18,8), airearen kalitateak (%13,7) eta etxebizitzak (%5,6)

jarraitzen dute herriko arazo nagusi izaten. Horien atzetik datoz kaleen garbitasuna (%5,5), aisialdi guneak (%5,3) eta azpiegitura publikoak eta haien egoera (%4,9).

2023ko udal hauteskundeetara begira durangarren boto estimazioa ere egin dute. Jesarleku kopurua honela geratuko litzateke inkestaren arabera: EAJK 8-9, EH Bilduk 7-8, Herriaren Eskubideak 2-3, PSE-EEK 2 eta PPK 0-1.

"Horrelako inkestak oso erabilgarriak dira, herritarrek hainbat gairi buruz duten iritzia hela-

razteko balio digute eta. Jendeari ikusarazi diogu bere iritzia garrantzitsua dela gobernu talde honentzat erabakiak hartzeko orduan", azaldu du gobernu taldeak.

Bestalde, EH Bilduk ere bere balorazioa egin du: "Hor daude, besteak beste, Ima Garrastatxu udaleko ordezkari balaratuena izatea, EH Bildu alderdirik balaratuena izatea eta maiatzeko hauteskundeetara begira zinegotzi kopuruan ere hazteko dagoen aurreikuspena".



Aztikerrek 2021ean egin zuen aurreko azterketa Durangoko Udalarentzat.

anboto ▶

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2023ko martxoaren 10a
21. urtea - 928. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Trenbide zaharreko trazaduraren ardura Durangoko Udalari uztea onartu du Euskal Trenbide Sareak

Alde bien arteko adostasun hori PERIaren inguruko akordiorako oinarria garatzeko "lehenengo urratsa" dela dio udalak

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Udalak ohar bidez jakinarazi duenez, "Euskal Trenbide Sareak trenaren trazatu zahararen beharrezintasuna onartu du". Horren arabera, Eusko Jaurlaritzaren menpekota den organoak "doan" utziko dio garai bateko trenbideko trazaduraren ardura Durangoko Udalari. Adostasun hau Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Garraio Sailak 2021ean adostu zuten akordiorako oinarriaren zati da. Hori dela eta, Udalak dio honako hau "lehenengo urratsa" dela PERIaren inguruko "akordiorako oinarria garatzeko". Gobernu taldeak berretsi egin

du indarrean dagoen PERIa, aurreko urteetatik hona indarrean dagoena, atzean uzteko aukera: "18 pisuko bost dorreak ahazteko", "Babes Ofizialeko 240 etxebizitza garatzeko" eta udalaren jabetzakoak diren eraikin historiko bi "erabilera sozialerako" eraldatzearen alde egin dute berriro ere.

Bide berdea

Udalak berreskuratuko dituen zatiak Durangoko erdigunetik Abadiñoko lurretaraino doan trazatua eta erdigunetik lurreta aldera egiten duen tarte dira. Horieta, trenbidea igarotzen zen lekuan, bide berdea egitea



Durangoko trenaren trazadura zaharra.

aurreikusi du Durangoko Udalak. Berreskuratze lanak hiru fasetan egitea aurreikusi dute, eta guztira 950.000 euroko inbertsioa egingo dutela iragarri dute. Kopuru horretatik 200.000 euro 2022ko aurrekontu parte hartzaileetatik hartuko dituzte, durangarrek gehien bozkatu zuten proiektua izan zela eta.

EAJren kritika

"Trenbidearen trazadura berreskuratzea albiste ona bada ere", Durangoko EAJren iritziz "tamalgarria" da trazaduraren ingurunea egokitzeko "milioi bat euroko kostua" durangarrek ordaindu behar izatea. Jeltzaleek prentsa oharrean azaldu duteenez, "gobernu taldea prest dago trazadura berreskuratzearen kostu osoa bere gain hartzeko, inolako hitzarmenik sinatu barik eta segurtasun juridikoa emango dion legez baliozkotutako akordiorik sinatu barik",

50 emakume durangarren lekukotasunak batu dituzte 'Durangas' dokumentalean



Dokumentaleko irudi bat.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

2021eko azaroan hasita, Huts Laboregiko Raquel Calvo eta Zuriñe López de Sabando kideek amaiera eraman dute proiektua. Ekoizpen eta muntaketa lanak amaituta, jendaurrean aurkezteko prest daukate *Durangas* film dokumentala. Ikus-entzunezkoak Durangoko emakumeen memoria bizia josi eta harilkatzen du, eta 60ko eta 90eko hamarkaden artean bizi zituztenak ditu ardatz. Besteak beste, emakumeen jatorria, hezkuntza, enplegua, sexualitatea eta aisialdia zelakoak izan ziren batu dute, horregaz guztiagaz denen arteko oroimen kolektiboa sortzeko. Testigantzez gainera, grabazio ludiko batzuk eta Durangoko Orfeoiko emakumeekin egindako soinu banda batu dituzte ikus-entzunezkoan.

Soinu banda Asier Pérez Basterak sortu, Garazi Navasek ahotsetara moldatu, eta Orfeoiko emakumeek grabatu dute. Ekoizpenean Andraguneak ere lagundu du, bertan gauzatu dituzte-eta testigantzak lantzeko tailerrak eta

elkarrizketak. Udal Artxiboa eta San Agustin Kulturgunea ere baliatu dituzte ikus-entzunezkoa lantzeko.

Aurrestreinaldia zapatuan

Filmaren lehenengo emanaldia zapatu honetan egingo dute, 12:00etan, Zugaza zineman. Doku-

Filmaren lehenengo emanaldia zapatuan egingo dute, 12:00etan, Zugaza zineman

mentala Raquel Calvo zuzendariak eta filmean elkarrizketatu duten Arrate Bañeresez aurkeztuko dute ikus-entzuleen aurrean. Amaieran, berbaldia egingo dute bertaratutakoekin batera. Filmak Durangoko Udalaren Berdintasun eta Nagusien sailen laguntza izan du.

Dokumentala ikusteko lekua honako helbide elektronikoen bitartez hartu daiteke: huts.lab@gmail.com eta huts@huts.eus.

anboto
kide



Egin zaituz Anbotokide
eta baliatu deskontu
sarearen abantailez



Dendako ehun guztietan
%10-eko deskontua,
eta 500€-tik gorako erosketetan
%5eko deskontua atsedan sistemetan.



Osoko bilkuraren aurretik ateratako talde argazkia.

Udala Energia Berriztagarrien Komunitateko bazkide

Elorriko Udalak aho batez onartu du Energia Berriztagarrien Kooperatibaren bazkide-sortzaile izatea

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Energiaren esparruan Elorrio burujabe bihurtzeko asmoz, Energia Berriztagarrien Komunitatea sortu zuten Elorrioren. Herria energia berdez elikatzea dute helburu. Kooperatiba Anbotopeko elkarteak egindako berbaldi batetik sortu zen, eta orain udalak koope-

ratibaren bazkide-sortzaile izatea onartu du, aho batez. "Adostasun politikoa azpimarratu gura dugu; pisu sinboliko handia du. Hemenetik aurrera, orain arte lez jarraitu behar dugu lanean, proiektua sendotu eta elorriarrentzat onuragarria izan dadin", gehitu du Maria Herrero.

Memoria historikoa hedatzen jarraitzeko berbaldiak Elorrioren

Laumunarrieta elkarteak Elorriko Udalaren laguntzagaz antolatu du Memoria Historikoa egitaraua

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Laumunarrieta elkarteak memoriaren astea antolatu du. Ekimenak ia martxo osoa iraungo du. "Gure herriko memoria ezagutzeko ezinbestekoa da egungo errealitatea ulertu, gure historiaren garrantzia nabarmendu eta etorkizunera begira urratsak egiten jarraitzeko", adierazi du Maria Herrero zinegotziak. Lehe-

nengo ekitaldia Ander Gillenen berbaldia izango da, gaur. Herriko ikasleekin emango diote hasiera ekimenari. Memoria historikoa egitarauak martxoaren 31ra arte iraungo du. Martxoaren 31n emango diote amaiera, memoria ibilbidearen inaugurazioagaz. 19:00etan izango da, Berriotxo eta San Juan kaleen artean.



Elorrio muralaren argazkia.

1.793 zenbakiak irabazi du Atxondoko Gaztetxeak antolatutako zozketa

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Gaztetxea berpizteko asmoz, herriko gazte talde bat lanean dabil zenbait ekimen eta ekintza antolatzen iazko urte amaieratik hasita. 2022ko abenduaren 17an, esate baterako, Atxondoko Gaztetxea berpiztu eta honen 24. urteurrena ospatzeko jaia egin zuten; afaria eta kontzertuak egon ziren, beste ekitaldi batzuen artean. Orain, Gaztetxeak kideek hainbat produktuz beteriko otzara bat zozkatu dute eta atxondarrek herriko hainbat taberna eta dandatan eskuratu ahal izan dituzte zozketan parte hartzeko zenbakiak.

Martxoaren 3an egin zuten zozketa, Apatamonasterioko plazan, eta bost zenbaki atera zituzten. Hauetxek: lehenengo zenbakia 1.793, bigarren zenbakia 1.602, hirugarren zenbakia 1.784, laugarren zenbakia 1.792, eta bosgarrena 1.391.



Javi Crespo Abadiñoko PSE-EEren alkategaia izango da udal hauteskundeetan

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

PSE-EE Abadiñoko panorama politikora bueltatu da legegintzaldi askoan udaletik kanpora egon eta gero. PSE-EEko iturriek baieztatu dutenez, alderdia udal hauteskundeetara aurkeztuko da eta Javi Crespo izango da bertako zerrendaburua. Crespok ibilbide luzea du udalean. Hainbat legegintzaldi egin du Abadiñoko Independienteetan; azken honetan, udaleko alkateordea eta Mankomunitateko presidenteordea izan da. Baina orain, independenteen plataforma deseginda, Crespo PSE-EEra joan da.



Jose Luis Navarro hauteskundeetara aurkeztuko da, talde politiko berri batez

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Abadiñoko Independentiek taldeak desegiteko hartu zuten erabakiak "mina" eta "tristezia" eragin dizkiola eta, Jose Luis Navarrok politikara bueltatzea erabaki zerrenda berri bat osatu. Navarro bera izango da zerrendaburua, eta halantxik jakinarazi du hedabideetara bidalitako oharrean. "Orain arte talde independenteak izandako eremua ezin da hutsik geratu", adierazi du alkate ohiak. Hori dela eta, "herria eraldatzeko lan egin zuten guztientzat maiatzaren 28an presente" egongo dela esan du.

Abadiñoko EH Bildu zahar-egoitzaren alde, baina kudeaketa publikoagaz

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aldundiak zaharren egoitza bat eraikiko du Abadiñon. Joan zen asteko osoko bilkuran, udalaren eta Aldundiaren arteko hitzarmenaren aldeko botoa eman zuten EH Bilduk. "Abadiñon 60 urtetik gorako 1.900 herritar ditugu eta pertsona nagusien kalitatezko zaintza eta bizitza aktiboa lehentasunezko gaia da guretzat", azaldu dute EH Bilduko zinegotziak.

Gainera, Abadiñorako zaintza sistema integral baten barruan, zaharren egoitza bat tresna baliagarritzat ikusten dute oposizioko kideek, eta "zerbitzu hau ahalik eta ondoen izateko lan egiten" dabilzala azaldu dute. Bestalde, egoitzaren kudeaketa publikoa izatea eskatzen dute EH Bilduko kideek. "Erabiltzaileei kalitatezko zerbitzua ematea da helburua", gaineratu dute.



Javi Crespo eta Mikel Garaizabal.

Abadiñon aginte planeko jarduketaren %86, martxan

EAJk eta Independentiek osaturiko taldeak agintaldiaren amaierako kontuak aurkezteko deialdia egin du

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2020ko amaieran, EAJ eta Abadiñoko Independentiek taldeak osaturiko gobernu taldeak 2020-2023 aldirako bere Aginte Plana aurkeztu zuten. Joan zen astean jakinarazi zuten, jarduketaren %86 burutu dira edo gauzatzen dabilzta. "Helburu jakin batzuk

lortu gura genituen, eta inoiz ere ez ditugu inoiz bistatik galdu. Herriarrentzat lehentasunezkoak ziren jarduketa horiek betetzeko lan egin dugu, eta lan egingo dugu", azaldu du Mikel Garaizabalek.

Bestalde, azaldu dute batzarrak egingo dituztela herritarrei Agintaldi Planaren berri emateko.



Gremioen gida

 **Zurgintza**

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**


Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**


UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalatzaile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 **Zurgintza**

ATERPE ARBOTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

 **Dekorazioa**

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Mallabiko Udala "prest" Ermuko Udalagaz eta plataformagaz batzeko, kamioien trafikoaren harira

Ermuko plataformak trafikoa herrigunetik kentzeko alternatiba bi aurkeztu ditu Batzar Nagusietan, eta Mallabiari eragiten diote

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Ermuko herrigunetik pasatzen den kamioi kopuruak hango herritarren artean eragiten duen kezka ez da gai berria. Arazoa konponduko lukeen saihebidetza egiteko asmoa ere aspaldikoa da. Bere sasoiari, Bizkaiko Foru Aldundiak hiru fasetan banatu zituen lanak. Eurretari bat 2018an amaitu eta inauguratu zuten: N-634 errepidea San Lorentzoko biribilguneagaz eta Eibarko saihebidetzagaz zuzenean lotzen duena, hain zuzen ere, Ermuko herrigunera sartu beharrik barik. Baina gainerako fase biak egiteko daude: Urtia eta Goitondo industrialdeetara joango diren bide zatiak. Oraintsu, Ermuko auzokideen plataformako kideek euren egoera azaltzeko aukera izan dute Bizkaiko Batzar Nagusian. Eta proposamen bi egin dituzte kamioien trafikoa beste toki batzuetatik bideratzeko industrialde bietara.

Urtiara joateko, honako alternatiba hau aurkeztu dute Eibarretik datozenentzat: saihebidetza hartzea eta Areatio gainean Mallabirantz



Ermuko plataformako proposamen batek Mallabarrena ingurutik bideratzen ditu kamioiak Urtiara heltzeko.

hartzea industrialdera heltzeko. Kasu honetan, Mallabia herrigunetik pasatuko lirateke kamioiak, Mallabarrena ingurutik, hain zuzen ere. Goitondora joateko proposamena hau da: autobidean Abadiñoraino joatea (kamioi horiek

ez lukete bidesaririk ordainduko); handik Trabakura eta Trabakua gainetik industrialdera, BI-2301 errepidetik.

Mallabiko Udalak ohar bat atera du gaiaren inguruan. Ohar horretan, udalbatza osatzen du-

ten alderdi bien (EAJ eta EH Bildu) iritzi bateratua jasotzen da. Batetik, proposamen biek Batzar Nagusietara jo aurretik, eurekin batzartu beharko zirela uste dute: "Azpimarratu gura dugu plataforma hori hartu-emanetan ipini

behar zela Mallabiko Udalagaz, eta baita udalbatza osatzen duten alderdi politikoekin eta Mallabiko auzo-plataformekin ere, alternatiba horien alde onak eta txarrak bertatik bertara ezagutzeko, beste erakunde batzuei proposatu aurretik".

Horregaz batera, elkarlanerako deia egin diete platarformari eta Ermuko Udalarari: "Prest gaude Ermuko Udalagaz eta plataformagaz batzeko, saihebidetzaen faseak egiteko izapideak arintzeko eta

Argi dute "geratzen diren fase biak amaitzean helduko dela arazoaren benetako irtenbidea"

udalerrri biei berdin eragiten dien arazo hori konpontzeko". Hala ere, argi dute "geratzen diren fase biak amaitzean helduko dela benetako konponbidea".

Mallabian ere trafiko arazoei "gogaituta" daudela diote. "Goita auzoan, adibidez, trafiko arazoak izan dira Goitondorako joan-etorriekin, hainbestetan salatu dugun moduan. Trabakuko trafikoak sortzen duen arriskua ere begi bistan dago", gaineratu dute.

Otxandioko Udalak gazteen beharrianak jaso eta lantzeko dinamika hasi du

Oraintsu herriko gazteekin batzartu dira haien ekarpenak eta kezkak jasotzeko, eta galdetegi bat ere prestatu dute gura duenak bide horretatik bere iritzia eman dezan

OTXANDIO • J.D.

Legegintzaldia hasi zenean, herriko eremu askotako diagnostikoa egin eta 'Otxandio 2020-30 Biziguraz betie' izeneko txostenean batu zituen udalak. Harrezkero, hainbat eremutako egitasmoak abiatu dituzte, eta aurten beste batean sakondu gura dute: gazteen errealitatera gerturatu eta haien beharriaz zane erantzunak ematea dute helburu. Horrela, iazko udal balantzea egiterakoan identifikatutako hutsune bat lantzeari ekin diote, Egoitz Garmendia alkatearen esanetan.

Oraintsu, lanketa horretako abiapuntu lez, gazteei gonbidapenak bidali eta eurekin

batzartu dira. Bertan, haien ekarpen, iritzi eta kezkak jaso dituzte, hala nola etxebizitzari, alokairuari, gazteen ikasgelari eta autobusen ordutegiari buruzkoak. Horrez gainera, galdetegi bat ere prestatu dute gura duenak bere iritzia eman dezan. Laster beste batzar bat egiteko asmoa dutela azaldu dute udal arduradunek, baturiko ekarpenei erantzun bat emateko eta aurrera begirako oinarri batzuk ipintzeko. Izan ere, aurrera begira, gazteekin urtero batzartzea da asmoa. Udalean alokairuaren inguruko diru laguntza ildo bat prestatzen dabilzala ere aurreratu dute.



Mañarian egindako azokako irudia.

Mañarian egindako emakume sortzaileen azokaren balorazio positiboa egin du udalak

MAÑARIA • J.D.

Joan zen zapatuan, Mañarian ekimen berri bat egin zuten Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira: emakume sortzaile eta ekoizleen azoka. Durangaldetik zein Euskal Herri osotik etorritakoak batu ziren, Mañariko plazan. 22 postu ipini zituzten guztira. Udal ordezkariak "egokitzat" jo zuten ekimena. Hurrengo urtera begira eki-

menari "oihartzun handiagoa" ematen ahaleginduko direla ere adierazi dute.

Egun horretako ekimenak ez ziren emakume sortzaile eta ekoizleen azokara bakarrik mugatu. Eguerdian trikipoteoa egin zuten herritik zehar, eta, ondoren, bazkaritara joan ziren. Arratsaldean mahai-jokoak, karrakea eta musika girotua egon ziren, besteak beste.

Izurtzako Udalak lehiaketara atera ditu espaloi zati bat egiteko lanak

IZURTZA • J.D.

Izurtzan egindako azken udalbatzarrean, errepide ondoan espaloi zatiak egiteko lanen baldintza orria onartu zuten. Aho batez harturiko erabakia izan zen. Udalbatzarrean baiezkoagaz, obra lehiaketa publikora atera dute eta gura duten enpresak aurkeztu daitezke. Horren

Izurtza-Mañaria norabidean, ezkerreko aldean espaloi zatiak egitea da helburua

ondoren, proposamenak aztertu eta lanak esleituko dituzte.

Izurtza-Mañaria norabidean, espaloirik bako gune batzuk daude errepideko ezkerreko aldean, eta horietan espaloia egitea da aurtengo aurrekontuetan jasota egon den obraren helburua.

www.gualbiasesores.com

**Bezeroa, bere enpresako
kudeaketa eta bere
gogobetetzea dira
gure helburu nagusia**



- ✓ Aholkularitza fiskala
- ✓ Kontabilitate-aholkularitza
- ✓ Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- ✓ Lan-aholkularitza
- ✓ Kontu-auditoretza
- ✓ Aholkularitza juridikoa

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO

Tel.:946 818 636 - Faxe: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com



Anbotokideen txokoa

MARTXOKO ZOZKETAK



Munduari itzulia 80 egunetan antzerkirako sarrera bikoitza. Martxoaren 19an, San Agustinen.



Ping-Pang antzerkirako sarrera bikoitza. Martxoaren 19an, Arriolan.



Alaska literatura ikuskizunerako sarrera bikoitza. Martxoaren 20an, Bidebarrieta liburutegian. Loraldia festibalaren barruan.



Elur Zuriren hiru heriotzak ikuskizunerako sarrera bikoitza. Martxoaren 21ean, Alondegian. Loraldia festibalaren barruan.



Uxarte sagardotegian bi pertsonentzako jatordua.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Surrealismoa, Arriaga antzokian: Bego Zarate Arana
Bas(h)joan 2.0, Bilboko Itsas Museoa: Regina Arriola
Gosaria Xiberun: Leire Mendiburu

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



lazko 'Uztabarritzen' zirkuituko argazkia.

Berrizen hasiko da III. Uztabarritzen zirkuitua

Topa tabernan izango da estreinako saioa, 19:00etan

BERRIZ • A.M.

Durangaldea Uztabarritzen ekimenaren hirugarren edizioa hasiko da gaur, martxoak 10. Ohikoa den moduan, Durangaldeko eta kanpoko bertsolariek kantatuko dute. Gaurko saioan, Erika Lagomak, Ander Elorriagak, Bittor Altubek eta Eli Pagola hernaniarrak egingo dute bertsotan; Miren Amurizak ipiniko dizkie gaiak. Durangaldeko Bertso Eskolaren egitasmoak Durangaldeko bertsogintza hauspotu gura du, beste behin ere. Ekimenak Durangaldeko zenbait bertsolari belaunaldi batzen du. Guztira, Durangaldeko

hamazortzi bertsolarik parte hartuko dute; besteak beste, Erika Lagomak, Aitor Bizkarrak, Irune Basagoitik, Igor Elortzak, Miren Amurizak, Iruri Altzerrekak eta Gorka Pagonabarragak.

Nobedade lez, aurten tabernetan ere egingo dituzte saioak, bertsozaleengana hurbiltzeko. Aurten ere sei saio osatuko dute zirkuitua: Berrizen (martxoak 10), Zornotzako Zelaieta zentroan (martxoak 24), Elorrioko gaztetxean (martxoak 31), Garaiko probalekuan (apirilak 15), Mañariko Arritoki tabernan (apirilak 21) eta Otxandion (Apirilak 29).

Berrizko Merkatari Elkarteak urteurren ospakizunetan murgilduta dago

BERRIZ • A.M.

Berrizko Merkatari Elkarteak hogeitau urte bete ditu aurten. Hamarkada bi hauetan egindako lana gogoratzeko, elkarteak kanpaina berri bat ipini du martxan. Bertako dendetan erosketak egiten dituztenen artean, zozketa berezi bat egingo dute apirilaren 1era bitartean; balio desberdina duten txartelak zozkatuko dituzte. Kanpainak Berrizko cmerkatarien sektore

Bertako dendetan erosketak egiten dituztenen artean, zozketa berezi bat egingo dute apirilaren 1era arte

guztietan eragingo du (salto-kiak, ostalaritza eta zerbitzuak), eta parte hartzeko nahikoa izango da erosketa tiketearen eroslearen datuak idaztea eta dendan dagoen kutxan sartzea, erosketa tiketagaz batera. Zozketa apirilaren 3an izango da, 15:30ean, anbulatorio zaharrean (Juan Vicente Zengotitabengoa kalea, 6). "Uste dugu kanpaina hau garrantzitsua dela elkartearantz, eta bere lana errekonozitzeko ekintza bat dela; beraz, merezi duen garrantzia emango zaiola espero dugu, eta ez dela oharkabean pasatuko Berrizen", adierazi dute.

Eztabaida Zaldibarren, Sanjoangoa eraikineko balkoia eraitsi dutela eta

EH Bilduren esanetan, "herriko ondarearen aurkako eraso" da balkoia eraistea; udal gobernuak erantzun du "pertsonen segurtasunagaitik" bota dutela balkoia

ZALDIBAR • A.M.

Alde zaharrean dagoen Sanjoangoa eraikineko balkoi bat eraistea Zaldibarko Udaleko alderdi politikoak aurrez aurre ipini ditu berriro. EAJk eta PSEk osatzen duten gobernu taldearen esanetan, "arriskutsua" zelako bota dute. "Balkoia hondatuta zegoen, eta jausiz gero istripu bat eragin zezakeen", esan dute gobernu taldeko ordezkariak prentsa oharrean.

EH Bilduren esanetan, ostera, HAPOak eremu osoa babesten du eta balkoia bere lekuan ipintzeko eskatu du. "Gure ondareari erasotzen dion udal eta alkate baten aurrean gaude; Parkeko

hotela botatzeko asmoari eta Olazar kaleko iturria kentzeari gehitu zaie azken eraso hau",

esan dute. EH Bildu "bide judicialera jotzea" aztertzen dabilela azaldu du prentsa oharrean.



Eztabaida sortu duen balkoia hortxe dago, EH Bilduren esanetan.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak pauso bat gehiago eman du herriko emakumeen memoria bizia jaso eta haien aitzindariari aitortpena egiteko bidean. Iazko azaroan postalak banatu zituen etxerik etxe, zornotzarrek herriko emakumeen testigantzak, oroitzapenen bat, herriaren bilakaerari buruzko lekukotasunen bat idatzi zezaten. Bada, martitzenean, kontakizun horien saridunak nortzuk diren jakinarazi zuten. Deiene Pérez, Andoni Barañano eta Juan Luis Artabe Esther Diagonal batera. Hiru postalek 500 euroko Amorebono bana irabazi dute herriko komertzioetan gasatzeko.

ANBOTOk Jone Guenetxea zuzendariak postalak lehiaketako epaimahaian parte hartu du, Eider Etxeandia eta Jon Urutxutugaz batera. "Parte hartze handia egon da. Horrek erakusten du hemen badagoela zer kontatu. Atentzioa eman didaten istorioen artean, bilobek amamengandik jasoriko kontakizunak, Zornotzara bizitzera etorritako emakumeen testigantzak eta hemen bizi izan direnenak daude. Uste dut honako hau ekintza garrantzitsua dela feminismoaren ikuspegitik, memoriaren transmisioan eragiten laguntzen

Deiene Pérez, Andoni Barañano, Juan Luis Artabe eta Esther Diana, 'Emakume aitzindariak' postal lehiaketako irabazle

Zornotzako emakumeen oroitzapen eta bizipenak kontatu dituzten 180 postal aurkeztu dituzte lehiaketara



Ainhoa Salterain, Deiene Pérez, Jone Guenetxea eta Andoni Barañano.

duelako, hain zuzen ere", azaldu du Guenetxeak.

"Baina egitasmoa ez da hemen amaitu", esan zuen Ainhoa Salterain Gizarte Ekintza eta Berdintasun zinegotziak. Ariketa honek "errelato bati aurpegia ipintzeko" balioko duelako aurrerantzean, herriko emakumeen historia kolektiboa

osatzeko. Izan ere, postalak ariketa honetatik tiraka, udalak herriko emakumeen memoria bizia jasotzeko dokumentala egingo du azaro ingururako. Baleuko ekoiztetxeko kideen laguntza izango dute horretarako. Salterainek aurreratu du "11 herritarren testigantzak" batuko dituztela bertan.



Labe berriaren argazkia. SMURFIT KAPPA.

Smurfit Kappak dioenez, kare-labeak eta gasak tratatzeko sistema berriak Europako araudia beteko dute

IURRETA • E.H.

Azken asteotan Iurretako Smurfit Kappa paper fabrikako labe berriaren inguruan egondako ika-mikaren harira, enpresak esku artean duen proiektuari buruzko informazioa kaleratu du. Paper fabrikatik baieztatu dutenez, instalazioan bertan "kare-labe berri bat" eta "gasak tratatzeko azken belaunaldiko sistema" eraikitzea aurreikusi dute. Azpiegitura horregaz, lantegiko ekoizpen prozesuan sortzen diren "kaltzio karbonato hondakinak" kare bihurtu gura

dituzte, gero kare hori ekoizpen prozesura bueltatu eta lehen-gai modura erabiltzeko. Modu horretan, ekoizpen prozesuari dagokion "sistema zirkularra" zarratu gura duela azaldu du Smurfit Kappak. Lantegiko iturrien esanetan, horrek "eragin positiboa" izango du karbono aztarnan, 75.000 tona hondakin ez direlako zabortegira bidaliko, eta urtean errepideko garraioan 450.000 kilometro inguru ezabatuko direlako. Paper fabrikak 27 milioi euroko inbertsioa egingo du azpiegitura berrian.

Durangaldeko Ekogarapen Gunea aurkeztu dute

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durangaldeko Ekogarapen Gunea garai bateko Fundifes lantegiaren orubean eraikiko dute. Proiektuan eskualdeko enpresek eta Lanbide Heziketa ikastetxeek esku hartuko dute, eta bertan integratuta egongo da Maristen ikastetxe berria. Proiektuaren sustatzaileen artean, DEK Durangaldea Enpresa Ekimena, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza daude. Besteak beste, Arantxa Tapia sailburuak eta Mireia Elkoroiribe Mankomunitateko presidentek parte hartu zuten aurkezpenean.



Joan zen astean egin zuten Ekogarapen Gunearen aurkezpena, Durangon.

Garaiko Udalak 175.450 euro erabiliko ditu hirigintza plan berria egiteko

GARAI • E.H.

Garaiko Udalak 178.450 euro ipiniko ditu hirigintza plan berria egiteko, hau da, datozen urteetan herriko lan urbanistikoak arautuko dituen oinarria idatzi eta garatzeko. Plan orokor berria hainbat irizpide kontuan hartuta egin gura dute. Besteak beste, energia eraginkortasunari loturiko irizpideak, genero-hirigintzari loturikoak edo mugikortasunari zein osasunari loturikoak txertatuta. Udalak herritarren parte hartzea sustatu gura du plan berriaren

lanketan, eta "ahalik eta adostasunik handiena" lortzen "ahalaginduko" dela iragarri du. 11 fasetako egutegi bat egin dute hori aurrera eramateko.

Garain gaur egun indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra orain dela 32 urte onartu zen. Udalerriak aldaketa ugari izan du hamarkada hauetan, eta, udalaren iritziz, "behar-beharrezkoa da plan berria gertatzea". Oraingo eta etorkizuneko beharrezkoak identifikatu gura dituzte.

martxoak 9 - 29



Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Bat egin Errigora Balioekin



Bete ezazu despentsa urte guztirako

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

errigora.eus



Ourdaybik auzolanean egindako boulderra aurkeztu zuen barikuan

Lanak fase bitan egin dituzte. Boulderraren lehenengo zatia 2018an aurkeztu zuten, eta bigarrena joan zen barikuan

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen barikuan, Ourdaybik boulderra aurkezteko ekitaldia egin zuen, Landako Kirolegiaren azpialdeko lokalean. Ekitaldia herritar guztientzat egon zen zabalik, eta hainbat osagai izan zuen: boulderra aurkeztu zuten, mendiari eta eskaladari buruzko ikus-entzunezkoak eman zituzten eta luntxa ere egon zen bertaratu zirenentzat.

Ourdaybi elkarteak 30 urte-tik gora daramatza abenturari loturiko kirolak sustatzen, eta une honetan taldea osasuntsu dago. "Biziberrituta gaude. 40 bat erabiltzaile ginen lehen, eta orain 240 bat gara", esan zuen Ourdaybi elkarteak Javier Canales Osinaga 'Joni'-k. Herritarrak elkarteak kide izateko deitu dituzte.



Auzolanean egindako boulderra. DURANGOKOUDALA

Politikan

Garazi Errasti
Silloniz
EH-Bildu



Piztu, Poztu, Puztu!

Zabaldu ditu ateak, heldu da eguna! Martxoren 3an Plateruena Kultur aterpea jendez gainezka ikusi genuen. Pozez zoratzen nago euskal kulturak berriz beste leku bat daukalako Durangon. Herriko Kultur Aterpe izango da Plateruena berriztu hau, eta bertako musika talde, dantza ikuskizun, antzerki, bertso saio eta abarren erdigune izango da.

Durango kultura herria EH Bildurentzat. Kultur elkarte asko ditugu herrian, eta haur, gazte eta helduei kultura irakasteaz gain, euskara bultzatzea ere dute helburu askok. Dudarik gabe, proiektu honetan ezinbesteko eragile direla badakigu; horregatik, ibilbidea eta nondik norakoak bideratuko dituen Kultur Mahaia martxan jarri dugu.

Plateruena eraberritu hau herritik eta herriarentzat izango den proiektu bat da. EH Bildun argi daukagu zerbitzu publikoak herritarrenak direla, eta, beraz, haien esku egon behar direla. Horregatik, Kultur Mahaiari esker, Plateruena Kultur aterpearen nondik norakoak erabakiko dira. Lehen esan dudana bezala, herriak herriarentzat egindakoa izango da.

Horrek guztiak maite ditudan euskal musika talde eta dantzariak oholta gainean ikusteko aukera ahalbidetuko digu; beraien ikuskizunaz gozatu eta ondo pasatzeko; eta nola ez, Plateruena berriro ere jendez lepo ikusteko. Aro berri honetatik aurrera, orain arte izandakoa baino kultura eskaintza zabalagoa izango dugu bertan. Gora Euskal Kultura eta gora PLATERUENA KULTUR ATERPEA!

Iritzia

Elorrioko erakusketa

Elorrioko Iturri kultur etxean otsailaren 1etik 25era ikusgai egon den koadroen erakusketa amaitu da. Eskerrak eman nahi dizkiot Elorrioko Udaleko Kultura Sailari eta baita lagundu didazuen pertsona guztiei ere. Eskerrik asko nire herrian erakusketa antolatzeke eta Elorrioren eta inguruetan ditugun gauza ikusgarriak erakusteko aukera ematearren.

Erakusketatik pasatu zareten guztioi ere bihotz-bihotzez eskerrak eman gura dizkizuet. Ez dakizue zelako bultzada eman didazuen pintatzen jarraitzeko!

Amaitu aurretik, eskerrak eman nahi dizkiet ANBOTOrri eta hedabideei, batez ere Durangaldekoiei, albistearren berri ematearren eta jendea erakusketa ikustera joateko laguntzarren.

Eskerrik asko!

Enrique Larramendi

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko

helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOrri irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Iritzia

Tabira & Mikeldi

Jakitera eman denez, Luis Valdes doktoreak Tabirako San Pedro inguru eta Mikeldiko San Bizente basiliza egon zen lekua aztertuko ditu, eta Durangoren jatorria sakonago ezagutu ahal izango dugu. Ikasketa horiek egiteak poztzen nau, baina Tabira eta Mikeldi ez dira ahaztuta egon, behintzat Gerediaga Elkarteak dagokionez.

Aita Vicente Zavalak egindako lan handia aipatu gabe ezin da Tabirari buruz hitz egin. Baina bere lanak ez ziren bakarrak izan, Luis Valdes doktorearen ikasketak lehenak izango ez diren bezala. 1989an Tabira birmoldatu zenean, Gerediaga Elkarteak eskatuta, udalak inguru horren azterketa arkeologikoa egitea eskatu zion Iñaki Garcia Camino Bilboko Arkeologi Museoko egungo zuzendariari. Unea aprobetxatuz, Concepción de la Ruak, EHU-UPVko Antropologia Laborategiko zuzendariak, Durangoko kondeen aztarnak dituzten eliza barruko sarkofagoak ikertu zituen.

2012an, Tabirako eliza eta ingurua berriro aztertu ziren. Elizaren barrualdea georadarrez arakatua izan zen eta hormen fotogrametria egin zen. Kanpoaldeko hilobiak aurkitu ahal izan ziren. Ikerketak Belen Bengoetxeak, EHU-UPVko Letren Fakultateko dekanok, eta Teresa Camposek, arkeologian doktoreak, garatu zituzten.

Mikeldiko San Bizente basiliza zegoen eremuan, etxebizitzak eraiki aurretik, 1991n Amaia Basterretxea Bilboko Euskal Museoko zuzendari ohiaren zuzendaritzapean indusketak egin ziren, eta bertan XI. eta XII. mendeetako aztarnak aurkitu ziren.

Gure iragana aztertzen jarraitzen dela egiztatzea pozgarria da. Baina elkarte eta pertsonen gure kultur ondarearen alde egin duten borrokaren memoria zein erraz galtzen dugun ikustekak pena ematen du. Borroka eta lan haiek gabe, gaur egun, hain harro sentitzen garen eraikin eta elementu askok ez zuten iraungo.

Jon Irazabal Agirre

EMAKUMEENTZAKO
AUTODEFENSA
IKASTAROA

Martxoak 23 eta 30 (ostegunak)
18:00 - 20:00
Iurretako Kultur Etxea

Izena emateko:
- Epea: martxoak 6tik 17ra
- Ibarretxe Kultur Etxea (Bidebarrieta, 4)
- e-maila: gizarte-ongizate@iurreta.eus
- Info+: 946 215 372



KIROL
ERROTA
gimnasioa

APARKALEKU PRIBATUA
ETA HAINBAT
KIROL-IKASTAROTAN
PARTE HARTZEKO AUKERA



www.kirolerota.eus
info@kirolerota.eus
Intxaurren kalea 54
DURANGO









Eman izena
hemen!



DOMINOA

PIRAMIDEAK

Osatu piramideak ikusten diren zirkuluen zenbakiak batuta.



MARGOTU

Zein da zure ametsetako etxea?
Erabili ezazu orrialde hau imajinatzen duzun etxea marrazteko.



BIKOTEAK

Topatu ate bakoitzaren bikotekidea.





'Muchos amigos negros'

ANTZERKIA DURANGO :: MARTXOAK 12

Desberdintasunari buruzko komedia beltza, San Agustinen

Ados Teatrok errealitateari loturiko istorio bat aurkeztuko du, domekan, Durangon: *Muchos amigos negros*. Gaurkotasan bizia duen gai bati helduko dio obrak: pertsona ezezagunari, migratzaileari, beste erlijio bateko jarraitzaileari, gizarte-klase ahulagoa duenari edo bestelako joera sexuala duenari beldurra edo arbuioa. "Geruza askoren azpian ezkututzen dugun sentimendua da hau", azaldu dute Ados Teatrokoek. "Ezberdin denarekiko, aniztasunarekiko bel-

durra, denok ezkututzen duguna, izan ere, 'lagun beltz asko' ditugu", gaineratu dute.

Garbi Losadak idatzi eta zuzenduriko obra da, desberdintasunari buruzko komedi beltza, "gizatasunez beteriko testu (beltz) bat, gizakiaren miseria (beltzak) umoreagaz (beltzagaz) nabarmentzen dituen komedia (beltza)". Ramón Ibarra, Asier Hormaza eta Asier Sota aktoreak igoko dira San Agustín kulturguneko oholtzara, domekan, 19:00etan.

Martxoaren 10ean

BERRIZ bertsoak

'Durangaldea Uztabarritzen' III. Bertso Zirkuitua: Erika Lagoma, Ander Elorriaga, Bittor Altube eta Eli Pagola, 19:00etan, Topa tabernan. Gai jartzailea: Miren Amuriza.

DURANGO bertsoak

Bertso afaria: 'Durangon bagoiez gaztetxe bille' 21:00etan, Garai Jauregian.

IURRETA antzerkia

'Eneko eta Ixabel: bertako elikagaien bila' (Edabe), 17:00etan, Ibarretxen.

ZALDIBAR ikuskizuna

'Desde la mujer que soy' (Arymux), 18:00etan, liburutegi zaharrean.

ZORNOTZA antzerkia

'Feminissimas' (Ste Xeito), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Martxoaren 11n

ABADIÑO kontzertua

Elene eta Maddi, 19:30ean, Isiotu kultur elkartearen.

BERRIZ musika

Neomak, 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO dokumentala

'Durangas' (Zuz. Rakel Calvo), 12:00etan, Zugaza Zineman.

DURANGO kontzertua

Olaia Inziarte + Hofe, 22:00etan, Plateruena kultur aterpean.

ELORRIO argazkiak

Euskal Herriko gatazka politikoa oinarritzat duen argazki proiektua: 1990etik 2018ra bitartean ateratako irudiak (Ander Guillen), 18:00etan, Arriola antzokian. Egilea egongo da.

ELORRIO iibildaldia

'Elorrioren emakumeon* eskubideen alde ibiltzen' Urkiola mendi martxa, 08:30ean.

MALLABIA pilota

Emakumezkoen Gomazko Paleta Elite Txapelketako finala, 16:00etan, frontoian.

ZORNOTZA desfilea

Loto Burleske Urritze Institutuko ikasleen desfilea, 19:00etan, Zornotza Aretoan. Bigarren emanaldia, 21:00etan.

ZORNOTZA sariak

Emakume Nekazari eta Artisauen XXV. Azoka, eta 'Emakume baserriarrak gaittun' erakusketa, Zubiondo parkean (10:00-15:00). Triki Piu taldeak girotuko du goiza. II. Marixelarre sarien banaketa, 10:00etan, azoka gunean. Aurten, 1940-1975 artean profesionalki aritutako emakume zornotzarrak omenduko dituzte.

'Ni neu zinegile,... nire filmaren zuzendari', Zelaietan (Gariza Produzioak).

Martxoak 12an

ABADIÑO musika

Lukiek, 13:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

DURANGO lasterketa

XVI. Lilakrosa, 12:00etan, Ezkurdi plazan.

DURANGO elkartasuna

Zumba Maratoi Solidarioa lurrikarak kalteturiko siriari laguntzeko, 11:30etik 13:30era, Landako kiroldegian.

MALLABIA antzerkia

'Miss Spein' (Las Paralelas), 12:30ean, Kontzejuzarrean.

Martxoaren 13an

DURANGO tailerra

Arazakeriaren aurkako tailerra (Bizkaia SOS Arazakeria elkarte), 18:00etan, Zabaltzen Sartun. Izena emateko 648 511 741 telefono zenbakira deituta.

DURANGO pilota

Women Winter Series lehen edizioaren finala, 19:00etan, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Martxoaren 16an

ELORRIO tailerra

Elorrioren emakumeon* eskubideen alde sentsibilizatzen tailerra, 18:00etatik 20:00etara, Iturri kultur etxean.

Martxoaren 17an

ABADIÑO antzerkia

'PIZTU EmakumeON Energia' (Eidabe), 17:30ean, Errota kultur etxean.

BERRIZ antzerkia

'Ping-Pang' (Xabi Larrea), 17:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO solasaldia

Solasaldi literario feminista: 'Petare, Miren Azkarateren puxkak' (Leire Iburguren), 19:00etan, Andragunean.

ELORRIO musika

Nevadah+Perlata, 22:30ean, Ateneoan.

IURRETA antzerkia

'La Reina del Arga' (Quiero Teatro), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA antzerkia

'El nadador de aguas abiertas' (K Producciones), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Zinema

:: Abadiño

ERROTA KULTUR ETXEAN

• *El triángulo de la tristeza*
zapateria 11: 19:00

• *Rabbit Academy: Pazko arrautzen lapurreta handia*
domeka 12: 17:00

:: Berriz

KULTUR ETXEAN

• *Asterix y Obelix y el Reino Medio*
barikua 10: 17:00
domeka 12: 17:00

:: Durango

ZUGAZA ZINEMA

• *Scream VI*
barikua 10: 18:30 / 21:00
zapateria 11: 16:30 / 19:00 / 21:30
domeka 12: 17:00 / 19:30
astelehena 13: 18:00 / 20:15
martitzena 14: 18:00 / 20:15
eguzatena 15: 19:00

• Mari (dos)

barikua 10: 18:30 / 21:00
zapateria 11: 16:30 / 19:00 / 21:30
domeka 12: 17:00 / 19:30
astelehena 13: 18:00 / 20:15
martitzena 14: 18:00 / 20:15
eguzatena 15: 19:00

• El caftán azul

barikua 10: 20:00
zapateria 11: 19:00 / 21:30
domeka 12: 19:30
astelehena 13: 18:00 / 20:15
martitzena 14: 18:00 / 20:15
eguzatena 15: 19:00

• Violeta. El hada traviesa

barikua 10: 18:00
zapateria 11: 16:30
domeka 12: 17:00

:: Elorrio

ARRIOLA ANTZOKIA

• *La Maternal*
zapateria 11: 20:00
domeka 12: 20:00
astelehena 13: 20:00

• *Momiak*
domeka 12: 17:00

:: Zornotza

ZORNOTZA ARETOA

• *La novia de América*
domeka 12: 20:00
astelehena 13: 20:15

• *Mi querido monstruo*
domeka 12: 17:00

• *El agua*
martitzena 14: 20:15

• *Continuer (JBGA)*
eguzatena 16: 20:00



Athletic Club



Vs



Getafe CF

Apirilak 1 | 16:15etan



Athletic Club




Vs



CA Osasuna

Apirilak 4 | 21:00etan

Ligako eta Kopako partida guztietarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Athleticen eta FC Barcelonaren arteko partidarako sarreraren irabazlea:
Oihana Azkorbebeitia

Atheticek San Mamesen jokatu dituen Ligako eta Kopako partida guztietako sarrera bikoitz bana (palkokoa) zozkatuko du ANBOTOK.

Oraindik Anbotokide ez bazara, ez galdu zozketa hauetan eta ANBOTOK egiten dituen gainerakoetan parte hartzeko aukera eta egin zaitez Anbotokide!

Zozketan parte hartzeko azken eguna: martxoaren 26a.

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



**anboto
kide**



“Lan berri honetan ere badago egonezina, baina bidelagun lez”

Hamabost urteren ondoren, Jon Garciak, Ritxi Blancok eta Asier Eliasek lozorroan sartuko dute Mocker's taldea; denborak esango du proiektua itzuliko den ala ez, baina hirukoteak "ganoraz" itxi gura izan du zikloa: 'Argia egin' diskoa kaleratu dute eta hamabost bat kontzertu emango dituzte ekainera bitartean; Durangaldean lehenengoa Martxoaren 18an, Elorrion

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Mocker'sek 22 minutuko bidaia proposatu du 'Argia egin' lan berrian. Gaurtik aurrera entzungai dago plataforma digitaletan.

'Oreka ahula'-k nahiko ziklo gorabeheratsua izan zuen.

Ritxi Blanco: Gure ustetan, zikloa ez zen itxi. Pandemiak gelditu egin zuen; hain zuzen ere, dena bertan behera geratu zen asteburuan kontzertu bi eman behar genituen, Gernikako Iparragirren bat, Lekuek jaialdian, eta Azpeitiko San Agustinen bestea. Guretzat garrantzitsuak ziren kontzertu bi horiek; horrez gainera, beste hamar bat kontzertu genituen lotuta, eta uda osoa geratzen zitzaigun aurretik. Gero Asier kanpora joan zen, eta geldirik egon behar izan genuen. Gerora, egon da aukera zikloa ganoraz ixteko, baina gorputzak eskatzen zigun *Oreka Ahula*ko abestiez gainera abesti berriak sortu eta jo behar genituela. Hor erabaki genuen konposizio berriak egitea; hor hasi ginen lantzen *Oreka Ahulagaz* hasitako zikloa ganoraz ixteko behar genuen kontzeptua.

Asier Elias: Ordura artekoa ondo zihon, bost hilabeteen hamabost kontzertu eman genituen. Bat-ba-

tean dena jausi zitzaigun. Eta, ordu-tik, hiru urte igaro dira. COVIDa, ni kanpora joan nintzen... Jarraipen bat da hau, baina zerbait berria eskainiz.

Baikorragoa iruditu zait 'Argia egin'.

A. E.: Izan daiteke. Melodia gehiago du eta hitzek ere tarte gehiago ematen diote itxaropenari.

R. B.: *Oreka Ahula* ezinegonagaz talka bat izan zen. Talka existentzial as-

Ez dugu ikusten zirkuitu potente bat eskaintza hori guzti hori xurgatzeko gai dena; Sorginola edo Sapuetxe zeuden lehen, baina orain ez

kogaz harrapatu gintuen momentu harek. Galdera asko genituen, abstraktoak, sentsazio zehatz batzuk. Hemen ere badago egonezin hori, baina bidelagun lez. Galdera horiek hor jarraituko dutela onartuta idatzitako abestiak dira.

A. E.: Ez da mezu ultrapositibo bat, baina krisi garaietan ere argia egon badagoela azpimarratu gura genuen, krisiei norberak zelan aurre egiten dien garrantzitsua dela.

Musika aldetik, aurrekoaren formulari eutsi diozuela esango nuke, abesti luzeak eta zati desberdinekin.

A. E.: Erritmoak garrantzi handia izan du beti Mocker's-en, baina baita melodiek ere; ez gara ez hain progresiboak, ezta hain poperoak ere; tarteko zerbait da. Nik hainbat proiektutan jo dut, baina gure indargunea sortzen dugun energia dela esango nuke; transmititzeko gai garela esango nuke.

R. B.: *Oreka Ahulan* estilo bat finkatu genuela esango nuke, kontzeptu oso bat garatzearena. Abesti luzeak egiten ditugu, eremu desberdinak ikutzen dituztenak, letra kontzeptuala dutenak. Lan berri honetan, ñabardura berriak sartu dizkiogu oinarri horri. Mocker's ulertzeko, kontzeptu osoa ulertu behar dela uste dugu, bloke osoa, musika, hitzak, irudia, zuzenekoak...

Curro Urebagaz grabatu duzue berriro.

A. E.: Oso ondo ulertzen gaitu. Esperientzia handia du zuzenekoan eta estudioan, eta gure rolloa bikain hartzen du: psikodelia, atmosfera desberdinak... Gure musika beste maila bat gorago igotzen duela esango nuke.

R. B.: Gu asko entseatuta joaten gara grabazioetara, eta horri eskerrak zabalik egoten gara proposamenei

dagokienez. Estudiora goazenerako eginda ditugu abestiak, baina amaieran berniz eskualdi bat eman behar zaio, eta Curro oso ona da horretan.

Beste aukerarik ez dugulako utziko dugu. Ea bizitzak noizbait bueltatzeko aukera ematen digun

Irudiaz Smoke Signals arduratu da, beste behin ere.

R. B.: Indar handia duen irudia egin digu berriro. Guk kontzeptua eta idatzitako berbak baino ez dizkiogu bidaltzen, eta gero berak beti lortzen du gu harritzea.

A. E.: Esateko gutxi Markelen inguruan. Flipatu egiten dugu sortzen dizkigun irudiekin. Oraingoak indar berezia duela iruditzen zaigu, hiru lagunek sortzen duten argia; ziklo itxieragaz lotu du, gainera. Guretzat ohore bat da beragaz lan egitea.

Taula gainera itzultzeko gogotsu?

R. B.: Azken urte bietan hiru kontzertu solte jo ditugu, beraz... beha-

rrezkoa zaigu. Ni neu nekatuta nago orain arteko aurreproduktzio lanekin, diseinuagaz... Nik gura dudana jotzea da. Diskoa kaleratzen badugu, gero zuzenean aurkezteko da, jotzeko.

A. E.: Hamabost bat kontzertu ditugu lotuta hemendik eta ekainera bitartean, eta data politak izango dira, gainera. Horrez gainera, zuzenekoak apur bat aldatuko ditugula uste dut; inprobisazioarako tartetxo bat utziko dugu, eta horrek desberdin ere egingo ditu kontzertuak. Horrela guk geuk ere gehiago disfrutatuko ditugula uste dut.

Hamabost urte pasatu dira Mocker's hasi zenutenetik. Iraun egin duzue, baina, bien bitartean, beste talde asko sortu eta desegin egin dira. Zelan ikusten duzue ingurua?

R. B.: Talde kopuru eta proposamen aldetik, Durangaldean egundoko eskaintza dagoela esango nuke. Hainbat taldek kaleratu du diskoa oraintsu: Ezta Ilen-ek postpunka Zaldibartik; Dubek rock alternatiboa Berriztik; Nevadah-k rocka Durangotik; Ainkek, rocka; Katuk ñabardura propioak dituen punka; Peiok eta Itsuak rapa; eta The Kraven berriro martxan da urte askoren ondoren; horiek denak Durangaldetik irten barik. Baina ez dut ikusten zirkuitu potente bat eskaintza hori guzti hori xurgatzen duena. Durangon bertan, Sapuetxe edo Sorginola zeuden lehen, baina orain ez; Plateruena berriro zabaldu dute, baina ez da lekurik egokiena talde hasiberri batentzat, beharbada.

A. E.: Gu hasi ginenean leku gehiago zegoen jotzeko, beharbada, punkari lotuago zegoen eztanda edo...

R. B.: Hasieran gatzetxe askotan jo genuen, eta orain espazio horiek falta dira, baina horregaz ez dugu arduraz guztia espazio horien bizkar utzi gura; gu geu ere horren errudunak gara, antolatzen ez garen neurrian. Antolaketa handiago bat beharko litzateke talde eta gune autogestionatuen artean. Pentsatuz gero, ez sinestekoa da dagoen kalitatea eta aniztasuna, baina iruditzen zait ez dagoela horren islarik. Jende gutxi dakigu zertan dabiltzan musika taldeak.

Ziklo itxiera dator. Baduzue bertigorrik?

A. E.: Bakoitzak bere modura biziko du. Nik pena itzelagaz, baina pozik, aldi berean, oso modu politoan utziko dugulako, disko berriagaz eta taula gainean.

R. B.: Apurte egingo nau, baina harro ere banago. Institutuko lagun bigaz egin dudana egitera heldu naizela ikusita, harro nago: abesti berriak egin ditugu, atzerrian grabatu, Herberhereetan masterizatu, kontzertuak antolatu... Beste aukerarik ez dugulako utziko dugu. Ea bizitzak noizbait bueltatzeko aukera ematen digun.

“Liburua txukun geratu da eta gazteak poesiara hurbiltzen lagunduko du”

Martxoaren 18an 'Mare, ilargiari poemak' liburua aurkeztuko dute Durangoko Artekan, 12:00etan; erakusketa ere badago



Udane Ansa Irigorri

Ilustratzailea

OIARTZUN | 1982

ILUSTRAZIOGINTZA • ARITZ MALDONADO
Irakurle gazteak poesiara hurbiltzeko asmoagaz publikatu du 'Mare, ilargiari poemak' ilustrazio liburua 1545 argitaletxeak. Joseba Sarrionandiak, Elena Olavek, Leire Vargasek eta Leire Bilbaok parte hartu dute, besteak beste. Udane Ansa egin ditu ilustrazioak. Erakusketa bat ere antolatu dute. Arteka liburu dendan egongo da ikusgai, martxoan eta apirilean.

Durangaldeko hainbat idazlek parte hartu dute liburuan. Pozik eurekin lanean? Zelakoa izan da elkarlan hori?

Ez dut eurekin kontakturik izan prozesuan zehar. Testuak jaso ahala, 1545 argitaletxeko Xabi eta Eneko Salaberriak birbidali egiten zizkidaten, eta ilustrazioak amaituta eta maketatuta zeudenean ikusi zituzten idazlerik gehienek lehenengoz. Jakina, tarte bat utzi genien, ilustrazioen bat gustuko ez bazuten esan eta aldaketaren bat egiteko edo berria sortzeko. Baina ez zen halakorik gertatu, edo ez ziguten esan behintzat. Asko ezagunak banituen ere, inoiz ere ez nuen haiekin berba egin. Durangoko Azokan egin zen aurkezpenean eta Oiartzungo Udalean egin zenean ezagutu nituen batzuk.

Zer ikusi daiteke erakusketan?

Liburu barruan dauden hainbat ilustrazio original ikusi daitezke. Alde batetik, liburuak hiru hitzaurre ditu eta horietarako sorturiko ilustrazioak daude, handiagoak eta orri osoa betetzen dutenak. Bestetik, barruan aurkitu daitezkeen hamabost ilustrazio daude. Ezin genituen denak ipini, leku faltagaitik. Baita tamaina aldetik markoetan sartzen ez zirelako, edo original batzuk ondoren digitalki amaitu edo txukundu nituelako.

Agerikoa da liburu mimo handiz prestatu duzuela. Pozik emaitzagaz?

Liburu mimo handiz pentsatu, diseinatu eta sortu dute, eta plazera izan da proiektu polit honetan parte hartu ahal izatea. Txukun geratu da eta helburua beteko duela uste dut: gaztetxoak poesiara hurbiltzea eta Euskal Herriko poeta batzuk behintzat ezagutaraztea. Batetik, ilusio berezia egiten dit. Liburu oso bateko ilustrazioak egiten ditudan lehenengo aldia da eta lana handia izan bada ere, oso gustura egin dut.

Aurkezpenean, zer topatuko du bertaraten denak?

Pena handiz, baina ziurrenik ezingo naiz aurkezpenean egon. Liburu aurkezteaz gainera, parte hartu duten eta bertaraten diren idazleek euren poemak erreziatzea da asmoa, eta, bide batez, herriko hainbat gazte haiek sorturiko poemak erreziatzea ere. Ea animatzen diren! Liburuagaz batera, Bea eta Idoia Asurmendik (Jon Martinen hitzetatik) sortu duten kantaren bideoa ikusteko aukera ere egongo da.

Gai librean

Zerbait daukat kontatzeko

Orain dela bi eguen gertatu zitzaidana ez dut erraz ahaztuko. Uste dut inork ere ez lukeela erraz ahaztuko. Zuekin, irakurleekin partekatzea erabaki dut, behar dudalako azaleratzea eta zuekin partekatzea. Orain dela bi eguen Bilborantza abiatu nintzen. Arratsaldea iluntzen zebilen, argi ezin politagoa zeruan. Argazki bat atera eta 'story'etara igotzeko modukoa zen. Gehiago gustatzen zait, ordea, uneaz gozatzea. Eta horrek ekarri dit nire bizitzako hemeroteca gura baino apalagoa izatea. Zenbat gustatuko litzaidakeen txikitako Igor ikustea!

Izan ere, astelehenean ikastolako irakasle izan nuen Idoiak hemeroteca hori apur bat aberastu zidan. Zortzi urte nitueneko argazki eta bideo batzuk era-

kutsi zizkidan... alde batetik gogoratu nuen zergatik ez dudan hemeroteca handirik, lotsatu egin nintzen otsoak babesteko argudioak ematen ari zen Igor mutikoa ikusten. Bestalde, grazia egin zidan neure burua berbetan entzutea, ume doinu asko entzuten ditut baina ez nuen neurea gogoratzen, eta asko poztu ninduen.

Ai ene, harira, kontatu behar dizuedanera. Bilbora bidea, Miribillatik jaitsi eta taberna argentinarretik pasatzean... argentinarra-edo, egia da azken aldiz joan nintzenean zegoen zerbitzaria gutxienez zarautarra zela. Ez dakit zergatik, baina pertsonok gauzak ezagutu genituen modura gogoratzeko ohitura izaten dugu beti. Argentinarrak batek zerbitzatu ninduen lehen aldian, baina harrezkero ez dut hura ikusi. Berdin dio. Argentinarra da. Lagun baten

neba-arreba gazteari “Sarita” edo “Martintxo” deituko diogu, 40 urte dituen ere bai. Traña-Matienako Bedats taberna zenari beti deitzen genion “irlandesa”, lehenago taberna irlandar bat zegoelako. Iruditzen zait ohitura horrek argi adierazten duela zera: inoiz ere ez gara egoten guri eragiten ez digun aldaketa baterako prest, eta ez gara konturatzen batzuetan gu aldatu ezean, aldatu gura duenak ez duela lortuko aldaketa.

Bueno, esaten ari nintzena. Argentinarratik igarotzen ari nintzela ospera! Konturatu barik orrialdearen oinera hurbiltzen hasi naiz, ez dut leku nahikorik gura nuena kontatzeko... tira, behintzat izango dut hurrengo aldirako zer kontatu. Saiatuko naiz nire manierak aldatzen, beti ere zuek laguntzen badidazue.



Igor
Galarza Intxausti
Kazetaria

“Aurten oinarriak ipintzea zen helburua; uste baino lehenago gabiltza fruituak batzen”

Tabirako Baqueko kapitainetarikoa den Gorane Urainek taldearen aurtengo martxa onaren gakoak kontatu ditu

SASKIBALOA • JOSEBA DERTEANO

Euskadiko Lehen Nazional Mailan dabilen Tabirako Baqué taldeak 13 partidu irabazi ditu azken hamalauetatik. Hirugarren tokian kokatuta dago eta aukera du Lauko Fasera sailkatzeko. Lesio dezente izan dute, baina bigarren taldetik eta harrobitik igotakoak bikain erantzuten dabilta.

Pozik taldearen martxagaz?

Bai, oso pozik. Denboraldi hasieran talde berria ginen, talde gaztea. Gainera, jokatzeko sistema eta estrategiak aldatu genituen. Egokitu beharra izan genuen eta pieza txiki asko bateratu behar genituen. Hasieran kostatu egin zitzaigun, baina behin erritmoa hartu, pieza guztiak bere lekuan ipini eta elkar ulertuta, asko hobetu dugu. Aldaketak onerako izan dira.

Lesioei ere aurre egin behar izan diezue.

Bai, lesio asko izan dugu eta postu guztietan gainera. Baina uneko egoerara egokitzen asmatu dugu. Behetik datozen jokalariek trebatzen lan ona egiten gabiltzala uste dut. Oso gazteak dira eta bikain egokitu dira.

Kontatutakoak kontatuta, lortzen zabilzatenak mirari txiki bat dirudi.

Lan onaren ondorioa dela esango

nuke. Aurten, etorkizunerako oinarriak ipintzea zen helburua, sailkapenari begira helburu zehatzik ipini barik. Baina uste baino lehenago gabiltza fruituak batzen. Jokalariok eta entrantzaileok oso ondo elkar hartu dugu. Antxon Imaz, Joseba Arkarazo, Maren Ormaetxea eta Jorge Uriarte dira entrenatzaileak. **Zazpi jardunaldi falta dira liga erregularrara amaitzeko. Noraino heldu daiteke taldea?**

Goiko taldeen kontra jokatu dugu dagoeneko. Aurretik geratzen dena ikusita, Lauko Finalera sailkatu gaitzkeela uste dut. Baina pausoz pausoz goaz eta oinak lurrean ditugu. Kantxan irabazi dugulako urtebetez emakumeen liga nazionalen jokatzeko litzateke nire ilusioa, nire ametsa. Hori lortuta eta esperientzia hori bizita ezin pozago erretiratuko nintzen.

Ainhoa Baqué, Ane Garita, Mirari Aldekoa eta zu zeu 1995eko belaunaldiko uzta oparoko jokalariek izan zarete. Lehenengo biak erretiratu dira. Zuk zer asmo duzu?

Oraingoz ez dut horretan pentsatzen. Aurtengo urtean zentratuta nago. Baina, oraingoz, ez dut aurreikusten uztea. Oso gustura nago taldekideekin eta entrenatzaileekin. Oraindino gazte eta ondo sentitzen naiz.



Gorane Urain Gartzia
Saskibaloia jokalaria
DURANGO | 1995

Arlo pertsonalean, gustura zaude aurretik egiten zabilzaten lanagaz?

Momentu onean nagoela uste dut. Kantxan gustura sentitzen naiz eta ondo konpontzen naiz taldekideekin. Hori igartzen dela esango nuke. Konfiantzagaz eta motibatuta nago.

Txikitatik zaude Tabirakon. Klub hori baino ez duzu ezagutu. Ez duzu beste erronkaren bat probatu nahi?

Egia esan, inoiz ere ez dut pentsatu kanpora joatea. Tabirako familia bat da niretzat. Ez saskibaloia gaitik bakarrik, klubak ordezkatzen

duenagaitik ere bai. Ni benetan motibatzen nauena hemen jokatzeko da: nire etxean, lagunekin, familiarrekin... Hemengo sentitzen naiz. Ez dut neure burua beste klub batean imajinatzen.

Zure ama, Itsaso Gartzia, Tabirakoko presidentea izan zen. Berarengandik datorriz saskibaloirako afizioa?

Bai. Askok dut amari eskertzeko, baina ez saskibaloirako zaletasunagaitik bakarrik, baita bidean asko lagundu didalako ere. Lan handia egin dut heldu naizen tokira heltzeko, baina amaren sostengua

inportantea izan da niretzat. Entrenatzailea izan den osaba bat eta Juanjo Moreno ere inportanteak izan dira niretzat.

Gizonak EBA mailari eusteko borrokan dabilta. Helburua lortuko dutela uste duzu?

Mailari eusteko kapazak direla uste dut. Liga potente batean eta etxekoekin jokatu, euren lanak meritu handia du. Jaitsita ere ez litzateke ezer ere gertatuko. Esago nuke badakitela gatxa dela, baina oso borrokalariak dira eta seguru nago dena emango dutena.



'Harri Herri' saioaren aurkezpeneko argazkia.

'Harri Herri' txapelketako finala zapatuan jokatu dute, Abadiño probalekuan

19:00etatik 21:00etara jokatu da txapelketa. Sarrera doakoa da eta bertaratzeko deia egin diete herritarrei

HARRI JASOTZEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Martxoaren 27an, EITBk 'Harri Herri' programa estreinatuko du, harri jasotzea oinarri duen txapelketa. Programak Abadiño probalekuan grabatu dituzte eta astelehen gauetan emango dituzte, 22:30ean. "Herri kirolak gure nortasunaren parte dira, baina probaleku honen moduko espazioak behar ditu ikuskizunak bizirik eta gure kirol agendan

presente jarraitu dezan", adierazi zuen prentsaurrekoan Mikel Garaizabal Abadiño alkateak. Bestalde, Joseba Urkiola EITB Mediako kirol zuzendariak Abadiño probalekuak harturiko itxura eta Abadiño Udalgaz egindako elkarlanaren garrantzia azpimarratu ditu.

Txapelketak hiru saio izango ditu: finalerdi bi eta finala. Finala zapatu honetan grabatuko dute,

Abadiño probalekuan; 19:00etatik 21:00etara. Sarrera librea da eta bertaratzeko deia egin diete herritarrei.

Saioan 28 harri jasotzailek parte hartuko dute, 16 gizonetako eta 12 emakumetako, launa taldetan. Euren artean, Karmele Gisasola mallabitarra. Gizonak lau harri gaz arituko dira eta emakumeak, ostera, hirugaz. Emakumeak saioan duten presentzia nabarmendu du Urkiolak. "28 kirolari eta horietarik 12 emakumeak. Benetan berri ona", esan du.

Ainhoa Colino durangarra oso maila onean dabil AEBetako ibilketa probetan



IBILKETA • J.D.

Ainhoa Colino (Durango, 2004) Ameriketako Estatu Batuetako Hego Karolina estatuko Columbia College unibertsitatean dabil iaztik. Ikasketak egiten dabil han, eta unibertsitateko atletismo taldeagaz bere kirolik gustukoena egiten du: ibilketa.

Otsail erdian, 'AAC Indoor Championship' izena duen Ipar Karolinako txapelketan parte hartu eta bigarren amaitu zuen. Eta taldeka hirugarren geratu ziren. Baina orain arteko posturik azpimarragarriena joan zen barikuko da, 'NAIA Track and Field Indoor Championship' txapelketan eskuraturiko laugarren postua, Hego Dakotako Brookins herrian. Izan ere, Ameriketako Estatu Batuetako txapelketa nazionala izan zen eta NAIA ligan dabilzan unibertsitate guztietako atletarik onenak batu zituen.



Urrezko domina irabazi duen Abadiño talde mistoa.

Abadiño Sokatira Taldea munduko txapelketan, Belfasten

23 urtez azpiko taldeek –mistoak, neskenak eta mutilenak– urrezko domina bana irabazi zuten Ipar Irlandan lehiaturiko munduko sokatira txapelketan

SOKATIRA • J.D.

Egunotan munduko sokatira txapelketa lehiatzen dabilza Ipar Irlandan, Belfasten, eta hantxe dabil Abadiño Sokatira Taldea. Hainbat taldegaz pisu askotan parte hartzen dabilza. Eguazteenan, talde mistoak (lau neska eta lau mutil) sekulako lorpena eskuratu zuen: urrezko domina irabazi zuten 23 urtez azpiko mailan, 560 kilora arteko pisuan. Berriozarren kontra lehiatu dute finala eta abadiñoak gehiago izan ziren.

Atzo beste urre bi

Atzo eguerdian beste urrezko domina bi irabazi zituzten Abadiño tiralariak. Lehenengo, 23 urtez azpiko nesketan Berriozarko eta Abadiño launa tiralariak osaturiko taldeak 500 kilora arteko txapelketa irabazi zuen. Ondoren, 23 urtez azpiko mutilek ere urrezko domina irabazi zuten 600 kilora arteko txapelketan. Irlandako talde baten kontra jokatu zuten finala abadiñoak.

San Prudentzio pilota txapelketa berrikuntzekin hasiko da, etzi

Buruz burukoan sistema berritzaile bat probatuko dute; 22 tantora beharrez, 10 tantoko jokoak jokatu dituzte, lau eta erdia eta kantxa osoa txandakatuz

PILOTA • J.D.

San Prudentzio pilota txapelketak nobedadeekin ekingo dio aurtengo aldiari, domeka honetan. Binaka zortzi bikote arituko dira, eta buruz buru 16 pilotari. Azken horretan dago berrikuntza, buruz burukoan. Alde batetik, 22 tantoko partiduak barik 10 tantoko jokoak jokatu dituzte. Baina kontua ez da hor amaitzen; joko bat buruz buru jokatu dute, eta hurrengo lau eta erdiaren barruan. Bana berdintzen badute, tanto kopuru hobea duenak erabakiko du hirugarren joko

zein modalitatean jokatu den. Tanto kopuruan ere berdinduta badaude, txapa botako dute. "Gure artean irtendako ideia da. Guk dakigula, ez dago kriterio hori duen beste txapelketarik", adierazi dute Abadiño Atxtxiki pilota klubetik.

Partiduak domeketan jokatu dituzte, 16:30ean. Domeka honetako partiduak honako hauek dira: Alonso/Goikoetxea eta Artaraz/Armaolea buruz buru, eta Ibarloza-Bullon eta Gorostidi-Plazaola binaka. Finalak maiatzaren 1ean izango dira.



Partiduak domeka arratsaldeetan jokatu dira, Traña-Matienako pilotalekuan.

Jokaldia

Herri barrengarri

Asteon txio batean irakurri dut eta bat nator horrekin. Txiolariak zioenez, zinema areto batean *Irati* filma euskaraz ikusteko zeuden asko eta asko gaztelania hutsean zebiltzan berbetan. Beste behin herri honen errealitate gordina agerian gelditu zen, herri barrengarri bat garela. Gauza bat aldarrikatu eta beste bat egiten dugula, alegia. Ozenki defenditzen duguna egunero-egunero praktikan jarri, gure hizkuntza zaindu eta gure hizkuntzan kontsumitu barik, auzokideen hizkuntza darabil herri honetako euskaldun askok eta askok. Ziklismo denboraldia hasi dugula eta, sekulako pagotxa da goi mailako txirrindularitza telebistan euskaraz ikustea. Egun, kirol emanaldi gehienak gaztelania hutsean dira eta



Alfontso Arroio Monasterio
Kirol kazetaria

Euskaldun jatorrak gara, baina kontsumitzerako orduan espainolak baino espainolagoak

horrek eragina du batez ere haurrek kalean erabiltzen duten adierazpideetan eta beraien erreferentzietan. Euskara hutsezko terminologia aberatsa da oso ziklismoan. Fermin Aramendik eta Xabier Usabiagak kirol honi eta gure hizkuntzari egin dioten ekarpena apartekoa da. Harro egoteko modukoa da beraien aldamenen ikasi eta lan egitea. Baina euskaldun askok eta askok auzokideen telebistara jotzen du bi hizkuntzen artean hautua egin behar duenean. Hor daude audientzia datuak. Euskaldun jatorrak gara baina kontsumitzerako orduan espainolak

baino espainolagoak. Horregatik diot herri moduan barrengarri geratzen garela. Euskaraz egindako produktuak guk geuk ere ez baditugu kontsumitzen, zertan gabiltza? Ziklismoaren kasuan, itzuli handi batzuk egin ditut lanean eta ohartu naiz errespetua diotela eta baita begirunea ere euskaraz egindako lanari. *The basques, i baschi* gara. Aitaren batean Euskal Herriarekin eta ziklismoarekin lotzen dute mikrofono urdina. Ustea dut kanpoan gehiago baloratzen dela euskaraz egindako lana gurean baino. Etsipena eta tristura sentitu ditut dezentetan. Atzerrikoa, auzokideena hobea delakoan dago jende andana. Baina hauxe esango diet, urrutiko intxaurrak hamalau... Ruperren kantak dioen bezala, inork ez zidan esan euskalduna izatea zein nekeza den.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



AUKERA
Apartamentua. Erdi berria. Biziten sartzeko moduan.
142.500 € C.E.E: F



ABADIÑO
2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Trastelekua eta garajea.
190.000 € C.E.E= D



MARTXOAREN 8KO
ERDI BERRIA. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Balkoia. Garaje itxia.
318.000 € C.E.E= E



ZALDIBAR
85 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
157.000 € C.E.E=F



KIRIKIÑO KALEA
2 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du.
110.000€ C.E.E: G



BERRIZ
3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Trasteleku eta 37,35 m² ko garajea.
185.000€ C.E.E= E

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Herriko Gudarien kalea.

3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

DURANGO: Astepe auzunean. 3 logela, egongela, sukaldea, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. Argitsua. Pisu altua.

DURANGO: Antso Estegiz. Izugarritzko adosatua salgai. 3 logela eta 4 komun. Lorategia. Terraza. Txokoa. Ezin hobea.

ABADIÑO

ABADIÑO: Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA: Orozketa auzoa. Baserri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m²-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berrizatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeko.

//BULEGOAK ALOKAIKUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIKUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO 70 m²
3 logela
SAN FAUSTO: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, despentsa eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (mendebaldea). Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta aparkatzeko erraztatzuna. Egoera onean.
139.000 € C.E.E: F



DURANGO 80,30 m²
3 logela
ASTEPE: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun, eskegitokia eta galeria. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. 6,5m²-ko trastelekua eta 10,80m²-ko garajea. Hobekuntzak behar ditu.
224.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO 71,95 m²
3 logela
MARTXOAREN 8KO: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea). Altua, argitsua eta ikuspegi ederrekin. Zonalde berdeak eta herriguneko sarrera/irteeratik gertu. 6 m²-ko trastelekua eta 11,47 m²-ko garajea. Egoera onean.
243.000 € C.E.E: D



DURANGO 86 m²
3 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: (2.012 urtean eraikia). Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea) Leku onena kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. 22,4 m²-ko garajea eta 8 m²-ko ganbara. Bizitzen sartzeko moduan.
320.000 € C.E.E: Bidean



IURRETA 70 m²
3 logela
DANTZARI: Egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta galeria. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea). Leku onean kokatua, erdigunean. Berrizatzeko.
104.000 € C.E.E: G



MATIENA
ERAIKUNTZA BERRIA: 91,05 m²-tik aurrera. 3 eta 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatzeko.
254.900 €-tik aurrera

//DURANGO

ANTSO EZTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran.
180.000 € / E.E.Z=E

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua eta igogailua. **192.000€ / E.E.Z= F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **145.000 € / E.E.Z=G**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TRENBIDE KALEA: 5 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 175.000€ ORAIN 150.000€ / E.E.Z=F**

//ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZO: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 100.000 € / ORAIN 95.000€ E.E.Z=G**

MURGOITIO AUZO: Berreraikitzeo baserria lurzorugaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **LEHEN 125.000€ ORAIN 99.300 € / E.E.Z=F**

//GARAI

MOMOITIO AUZO: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZO: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

OTXANDIO

ZELAIETA AUZO: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ / ORAIN 280.000€ E.E.Z=BIDEAN.**

//GARAJEAK SALGAI

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

//BERRIAK

ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

Botikak

BARIKUA, 10 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 11 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

SANTAMARIA,
ERREKAKALE 6. - ELORRIO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 12 · 09:00-09:00

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 13 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,
MURUETATORRE 2C - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 14 · 09:00-09:00

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 15 09:00-09:00

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 16 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA


09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Iñaki (926. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.


Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozaturgozotegia



Martxoaren 12an **Ametzen** eta **Sugarren** urtegunen da. Zorionak eta mosu potolo bana familia guztiaren partez.



Zorionak, **Irati!** Urtebete besterik ez 18 egiteko. Ze luze ein biher jatzun... Gozatu!



Enarak 8 urte egin ditu. Zorionak etxekoan partez.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 13° / 17° ☁

ASTELEHENA ↓ 9° / 20° ☁

EGUAZTENA ↓ 7° / 18° ☁

DOMEKA ↓ 12° / 24° ☁

MARTITZENA ↓ 8° / 13° ☁

EGUENA ↓ 8° / 21° ☁

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o



NI EZ NAIZ MIKEL LABOA
Iturriza/ Cano/Larretxe
(Elkar)

2^o



BAR GLORIA
Nerea Ibarzabal
(Susasa)

3^o



GARI ETA GOROLDIOZKO
Anari Alberdi
(Susasa)

GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

"Peruk oso esperientzia eta erronka politak ekarri dizkigu"

Hego Amerikako hainbat herrialdeetan egon ondoren, Irene eta Jon Panamara heldu dira dagoeneko. Uztailean hasi zuten bidaia, Ekuadorren, eta apirilean bueltatuko dira lurretara



Jon Begoña Alvarez

Bidaiaria

DURANGO | 1990

Irene Garcia Valverde

Bidaiaria

ELORRIO | 1993

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Erdialdeko Amerikan daudela, Panaman, erantzun diete Irenek eta Jonen ANBOTOren galderari. Ekuadorren, Perun, Bolivian eta Argentinan egon ostean, Txileko eta Paraguaiako alde bana ezagutu zuten Uruguaira sartu aurretik. Panama dute azken geraldia etxera etorri aurretik. Hurrengo bidaia zein izango den pentsatu barik, momentua disfrutatzea dute helburu.

Lehenengoz egin duzue horrelako bidaia luze bat. Zerk bultzatuta?

Irene: Aspalditik genuen buruan horrelako bidaia bat egitea. Bidaiari-

tzeak asko betetzen gaitu eta uste dugu gustuko gauzak ezin direla gerorako utzi. Bidaia hau egiteko ez genuen gehiago itxaron gura.

Zergaitik Hego Amerika?

Jon: Hasieran Asiara joatea pentsatu genuen. Baina bagenekien bidaia luzea izango zela, eta Hego Amerikan gaztelaniaz egiten dutenez pentsatu genuen hori lagungarria izango zela bertakoekin konektatzeko eta bidaia osatuago bat egiteko.

Zelan mugitzen zarete?

Jon: Autobusez. Ez ditugu zenbatu, baina milaka kilometro egin ditugu; asko, gauez. Patagoniara joate-

ko, hegazkina hartu genuen, eta Panamara etortzeko ere bai.

Argentinak Munduko Kopa irabazi zuenean bertan egon zineten.

Jon: Bai. Hasieran ez genuen argi Argentinara sartuko ginen. Baina, azkenean, Munduko Koparen taldekako fasetatik hasita, partiduak jarraitzeko aukera izan genuen. Kordoban Argentina-Polonia ikusi genuen eta izugarria zen giroa. Flipatu egin genuen kalean zegoen jendetzagaz. Finalerdietara zein finalera heltzeko asko falta zenean ere, kalean bizi zena zoramena zen. **Espero izandako esperientzia izaten ari da?**

Irene: Bai. Ez genuen espektatiba zehatzik. Bidaiatu, momentua disfrutatu eta bizi, horixe gura genuen; eta ikasi. Lortu dugu hori guzti hori, eta oso pozik gaude.

Zeintzuk leku ahaztezin ekarriko dituzue zuekin? Zein herrialdek harritu zaituzte gehien?

Jon: Mordoak. Hasi paisaia andinoetatik, jarraitu Patagoniako parajeekin, eta orain gozatzen gabiltzan Panamako hondartza eta paisaia tropikalekin amaituta. Boliviako Uyuni inguruak ere izugarriak dira.

Bidaiatu, momentua disfrutatu, bizi eta ikasi, horixe gura genuen. Lortu dugu hori guzti hori eta oso pozik gaude

Irene: Apartekoak!

Jon: Beharbada, Peru izan da gehien harritu gaituena. Motxilero asko hartzen duen herrialde turistikoa dela jakin arren, gure espektatibak gainditu dituelako. Asko ikasi dugu hango kulturaz eta historiaz.

Irene: Peruk oso esperientzia eta erronka politak ekarri dizkigu. Asko bete gaitu.

Zer geratzen zaizue bisitatzeko?

Jon: Santa Katalinan gaude, Ozeano Bareko kostan. Hemendik, Karibera joango gara, Bocas del Torora. Boluntario lez gaude. Panaman egongo gara geratzen zaigun denboran.

Bidaiari askoren ustez, tokiko jendeagaz egotea da aberasgarriena.

Irene: Bai. Denborarik gehien egondako lekuetan bertakoekin eta beste bidaiari batzuekin harremantzeko aukera izan dugu, eta horrek asko betetzen du. Ezagutzen duzun jendeak egiten du desberdin bidaia bat.

Buelta gogorra izango da?

Jon: Pena apur bat sentitu arren, ez dugu uste aparteko gogorra izango denik. Egundoko esperientzia bizitzen gabiltza eta asetuta egingo dugu buelta, datorenarentzat energiagaz.

Lauhortza

Bixente Aizpurua Eguren
Jubilatu/ irakaslea



Elorrio eta ura

Abenduaren lehen astean Elorrioko etxe guztietara 2023ko egutegia heldu zitzaigun. Urari loturiko 12 argazki zein baino zein politagoa. Irudi eder horiek ikusita, udalari eta Turismo bulegoari proposamen hau bideratzen diet:

Elorriok gauza asko ditu ikusteko eta bertaratzen diren guztiak liluratuta uzteko. Bisita zoragarri bat izan daiteke urari lotutakoa eta hori burutu ahal izateko beharrezkoa izango litzateke gida bat prestatzea eta toki bakoitzean panel informatiboak jartzea.

Historiaz beteriko herri eder eta dotore honetan bi errota ditugu martxan: bat Aldapen eta bestea Zenita auzoan. Zenitako Olea baserrian aurrez adostuz gero errota martxan ikus daiteke.

Zenbait alberja daude Zenita, Aldape, Mendraka auzoetan, besteak beste, non bertan garbigailurik ez zegoenean arropak garbitzen (lixiba egin) zituzten etxean egindako xaboiarekin eta anilarekin.

Iturriak ez dira gutxi, auzo guztietan dago bateren bat. Entzutetsuenak Uratsa Zenita auzoan, bertatik hartzen zen Bainu Zaharretarako ura (gaur Lourdesko Ama Ikastetxea). Sarrera egokitu beharko litzateke baranda bat jarrita, oso irristakor eta arriskutsu baitago. Beste iturri dotore bat Berriozabaletan dagoena, Manuel Plácido de Berriozabalbeitiak bere emazteari opari lez eraikia.

Lino putzuak, Gazteeta auzoaren hasieran, bertan linoa sartzen zen beratu eta bigundu ondoren kardatuz haria egiteko.

Argi-indarra sortzeko transformadorea Gazeta auzoan.

Ea urte berri honetan proposamen honek forma hartzen duen eta lasterrera aipatutako inguruak txukunduta, errotulatuta eta informazioz jantzita ikusteko aukera dugun.

SAN
ROKE
BARRIA

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa



Proiektu berria Durangon,
efizientea eta terraza zabalekin.

INFORMAZIOA

946 46 20 41
www.sukia.com